

Hezkuntza Departamentuak gaur eguerdi bitarteko epea eman zigun 60/2009 Agindu Forala aldatzeko Mahai Sektorialean luzatu zigun lehenengo proposamenari ekarpenak egiteko. Behin epea akiturik, gure jarrera publiko egin nahi dugu:

1.- Azpimarratu nahi dugu Hezkuntza Departamentuaren proposamena guztiz aldenturik dagoela **STEILAS** sindikatuak defendatzen duen eredutik. Halarik ere, egungo araudia bertan behera berehala aldatzeko beharra dugu, eta honela, oposizioetara aurkeztu edo aurkeztuko ez diren pertsonen zein diren joko-arauak ezagutuko dituzte, hots, euren erabakiak izanen dituen ondorioak eta azterketaren garrantzia kontratazio zerrendak osatzerakoan. Hori dela eta, gure proposamena honakoa izan da: zerrendari dagozkion atalak soilik aplikatzea 2016/2017 ikasturtean, eta espezialitate eta hezkuntzaren arabera zerrenda bereiztuak gainditzen dituen marko berri baten negoziatioari heltzea.

2.- Prozesu parte-hartzailea izan dugu sindikatuko kide guztiekin, eta zehazturiko epeak bukatu ondoren, proposamenak aztertu eta sartu egin ditugu horietako hainbat. Berrero ere igorri diogu afiliazio osoari, bai eta administrazioa ere, gainontzeko sindikatuarekin konpartitzeko (bileran adostu bezala). Web orrian dago ikusgai.

3.- STEILASek interinoren zerrenden kudeaketaren inguruko edozein zirko-mediatioari izkin egin nahi dio. Inoiz baino beharrezko ikusten dugu irakasleen lan baldintzen gaineko negoziatioak dagozkion esparrura mugatzea, Mahai Sektorialera, alegia; hortik ez baitzuen inoiz atera behar.